

**GEOGARAPEN EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN KUDEAKETARAKO
ELKARTEAREN KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK**

A. APLIKATZEKO KONTRATAZIO MARKOA.....	1
B. ARAUKETA HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK.....	2
<u>I. Orokorrean aplikatzeko arauak.....</u>	<u>2</u>
1. KONTRATAZIO ORGANOA.....	2
2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.....	2
3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK.....	3
4. KONTRATUAREN PRESTAKETA.....	4
5. KONTRATUA BURUTZEA.....	4
6. KONTRATUA BETETZEA.....	5
<u>II. Plegua.....</u>	<u>5</u>
<u>III. Esleipen prozedurak.....</u>	<u>7</u>
1. OBRA KONTRATUAK.....	7
2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIKUNTZA, ZERBITZUAK ETA BESTE BATZUK).....	10
<u>IV. Errekurtsoak.....</u>	<u>14</u>
C. ARAUKETA HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK.....	14
<u>I. Orokorrean aplikatzeko arauak.....</u>	<u>15</u>
1. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOZKIEN BEREZITASUNAK.....	15
2. KONTRATUAREN PRESTAKETA.....	15
3. KONTRATUA PERFEKZIONATZEA ETA FORMALIZATZEA.....	15
<u>II. Plegua.....</u>	<u>15</u>
<u>III. Esleipen-prozedura.....</u>	<u>16</u>
<u>IV. Errekurtsoak.....</u>	<u>17</u>
1. PRESTAKETA ETA ESLEIPENA.....	17
2. EFEKTUAK ETA IRAUNGITZEA.....	18
<u>V. Ofizioz berrikustea.....</u>	<u>18</u>
D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA.....	18
I. ERANSKINA.....	20
II. ERANSKINA.....	22
III. ERANSKINA.....	23

GEOGARAPEN - EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN KUDEAKETARAKO ELKARTEAREN KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK

A. APLIKATZEKO KONTRATAZIO MARKOA

GEOGARAPEN, Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkarte (aurrerantzean Elkarte), Deba, Mutriku eta Zumaiako udalek sortutako Elkarte da, honako helburuekin:

- Lurraldearen garapen iraunkorra eta orekatua, lurralde horretako balio geologikoak, naturalak eta kulturalak babestuta bereziki, lurraldean bizi diren pertsonentzako mesedegarri diren ekintzak garatuz eta jarduerak abian jarritz.
- Lurraldearen ondare naturala babestea eta zaintzea, garrantzi berezia emanez ondare geologikoari, baita baliabide gisa balioa ematea ere, lurralde horretako herritarren garapen ekonomikoa eta soziala lortzea helburu izanik.
- Lurreko zientziak lurraldean sustatzea ikerketaren, hezkuntzaren (arautua eta arautu gabea) eta hedapenaren eremuetan, baita beste natur zientziak eta ingurumen-zientziak bultzatzea ere.
- Ondare kulturalari balioa ematea, hura dinamizatzea, berreskuratzea eta hedatzea.
- Ondare kulturalarekin –materiala eta ez-materiala- lotutako jarduerak (tradizioak, ohiturak, lanbideak, ahozko memoria, sormen artistikoa eta abar) sustatzea eta egitea, betiere ondare geologikoarekin, paleontologikoarekin eta arkeologikoarekin lotura handiena duten jardueri lehentasuna emanez.
- Ingurumen arloko hezkuntza sustatzea, lurraldearen berezko balioak kontuan hartuz bereziki.
- Natura turismoa sustatzea, bereziki bere balio geologikoak kontuan hartuta, baita kultura-turismoa sustatzea ere; hori guztia iraunkortasun esparruaren barruan.
- Turismo kultura ez ezik lurraldearen eskaintza ere hobetzea.
- Geoparkeen helburuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak dinamizatzea, tokiko produktuekin lotutako ekimenak babestuz bereziki.
- Eta beste erakunde batzuekin lankidetzan jarduteko ekintzak sustatzea eta egitea, elkartearen helburuak sustatzen lagun dezaketen ekintzak, alegia.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratua, aurrerantzean SPKLTB, onetsi zen. Dekretu honen arabera GEOGARAPEN Elkarte sektore publikoaren parte da eta Administrazio Publiko bat ez bada ere, Lege horretan esleipen ahalmena izateko aurreikusita dauden baldintzak betetzen ditu (Legearen 3.1.i eta 3.3.c artikulua); eta horrenbestez, SPKLTBn horretarako aurreikusitako xedapenak aplikatu beharko zaizkio.

Elkarteak egiten dituen kontratuak kontratu pribatuak dira.

Elkarteak egiten dituen kontratuak kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. **Lege honen mende ez dauden kontratuak.** Kontratu horiek ordenamendu juridiko pribatuaren mende egongo dira, beraz, edota, bestela, aplikagarri zaizkien arau berezien mende. SPKLTBren 4. artikuluan deskribatzen diren kontratuak dira halakoak (jarraibide hauen I. Eranskinean erantsita doaz). **Kontratu horiei ez zaizkie jarraibide hauek aplikatuko.**

2. Lege honen mende dauden kontratuak, baina arauketa harmonizatuaren izaera ez dutenak. Kontratu guztiak dira, hurrengo kategoriakoak salbu. Jarraibide hauen **B atalean aurreikusitakoa aplikatu beharko zaie.**

3. Lege honen mende dauden kontratuak, arauketa harmonizatuaren izaera dutenak. Jarraibide hauen **C atalean aurreikusitakoa aplikatu beharko zaie.** Kontratu hauek dira:

- Balio estimatua 4.845.000 euro¹ edo gehiagokoa duten obra-kontratuak².
- Balio estimatua 193.000 euro¹ edo gehiagokoa duten hornikuntza-kontratuak.
- SPKLTBren II. Eranskinen 1. eta 16. bitarteko kategorietan sartzen diren eta balio estimatua 193.000 euro¹ edo gehiagokoa duten zerbitzu-kontratuak.

Kopuru hauek BEZik gabekoak dira.

Kopurua edozein dela ere, SPKLTBren 13.2 artikuluan (jarraibide hauen II. Eranskina) aipatutako kontratuok ez dira inola ere arauketa harmonizatuaren mende dauden kontratuak, eta gauza bera SPKLTBren II. Eranskinen 17. eta 27. bitarteko kategorietan sartzen diren zerbitzu-kontratuak ere.

B. ARAUKETA HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK

Kontratu hauek dira:

- Balio estimatua 4.845.000 euro baino gutxiagokoa duten obra-kontratuak.
- Balio estimatua 193.000 euro baino gutxiagokoa duten hornikuntza-kontratuak.
- SPKLTBren II. Eranskinen 1. eta 16. bitarteko kategorietan sartzen diren eta balio estimatua 193.000 euro baino gutxiagokoa duten zerbitzu-kontratuak.

Kopuru hauek BEZik gabekoak dira.

-SPKLTBren II. Eranskinen 17. eta 27. bitarteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuak, eta aipatutako 13.2 artikuluen arabera kontratuak, edozein dela haien zenbatekoa.

I. Orokorrean aplikatzeko arauak

1. KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazko gaitasuna Elkarteen Estatutuetan eta aplikagarri diren zuzenbide pribatuko arauetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Kontratazio-Organoa ahalduna edo Elkarteko Zuzendaritza Batzordea izango da.

Kontratazio-Organok eskubidea izango du kasu bakoitzean egoki iruditzen zaion edo zaizkion pertsona edo pertsonak espresuki baimentzeko kontratuari dagozkion jarduerak egiteko.

2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

¹ Edo Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztu dezakeen zenbatekoa, SPKLTBTBren Hamaikagarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

Elkartearekin kontratuak egin ahal izango dituzte baldintza hauek betetzen eta egiaztatzen dituzten kontratistek:

2.1. Ahalmen-baldintzak

SPKLTBaren 54. artikuluan aurreikusitakoak dira.

55. artikulua (Erkidegokoak ez diren enpresentzat) eta 56. artikulua (bateragarritasun-baldintza bereziei dagokiena) aplikagarri dira.

2.2. Gaitasuna

57. artikulua (pertsoneko juridikoen gaitasuna), 58. artikulua (Erkidegoko enpresen gaitasuna) eta 59. artikulua (enpresarien elkarten gaitasuna) eskatzen dutena izango da.

Gaitasun hori 72. artikulua arabera egiaztatuko da.

2.3. Kontratatzeko debeku egoeran ez egotea

Kontratatzeko debekuei buruzko 60.1 artikulua eta kontratatzeko debeku egoeran ez daudela frogatzeko moduei buruzko 73. artikulua aplikatuko dira.

2.4. Kaudimeneko gutxieneko baldintzak

Kaudimen ekonomikoaren, finantzarioaren eta teknikoaren edo profesionalaren gutxieneko baldintzak Klausula Ekonomiko-Administratiboaren Pleguan xedatuko dira, eta honetan aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko dira.

Plegu horretan, kaudimena frogatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak ez ezik, aipatutako kaudimen hori egiaztatzen duten gutxieneko atalaseak ere zehaztuko dira.

Artikulu hauek aplikatuko dira: 62. artikulua (kaudimenduna izan beharra), 63. artikulua (kaudimena kanpoko baliabideekin bateratzea) eta 64. artikulua (kaudimen-baldintzak zehaztea).

2.5. Sailkapena

Klausula Ekonomiko-Administratiboaren Pleguan hala aurreikusi denean baizik ez da eskatuko sailkapen administratiboa.

3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

3.1. Kontratuaren objektua

Elkartearak bere helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar dituzten egingo dituzten kontratuak. Xehetasun osoz zehaztuko dira planifikatutako kontratuak aiseko dituen premien izaera eta norainokoa eta haren objektuaren eta edukien egokitasuna, eta hala jasoko da prestakuntza-dokumentazioan.

Kontratuaren objektua 86. artikuluan xedatutakoa aplikatuta zehaztuko da.

3.2. Kontratuaren iraupena

Elkartearak honako alderdi hauek hartuko dituzten kontratuen iraupena zehazteko: zerbitzuaren izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta zerbitzuei dagokienez aldiro-aldiro lehiaketak antolatu beharra. Horretarako, 23. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Kontratua luzatzeko aukerak Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan aurreikusiko dira, berariaz.

50.000 euro baino gutxiagoko obra-kontratuek eta 18.000 euro baino gutxiagoko beste edozein kontratuk (BEZik aplikatu gabe), esleipena zuzenean egiten denean, urtebeteko iraupena izango dute gehienez ere, eta ez dute luzatzeko aukerarik izango.

3.3. Prezioa

87. eta 88. artikuluetako arauak aplikatuko dira (kontratuaren prezioari, balioaren kalkulari eta lizitazio-aurrekontuari buruzkoak), Administrazio Publikoa ez izateagatik dagozkien egokitzapenak eginda.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan hala aurreikusi denean berrikusiko dira prezioak.

4. KONTRATUAREN PRESTAKETA

4.1. Eskaera

Esleipen zuzena egitea dagokion kasuetan salbu, Elkartearen barneko langileek jarraibide hauetako III. Eranskinetako inprimakia betez hasiko da kontratazio-prozesua. Inprimakia horretan planifikatutako kontratuak aseko dituen premien izaera eta norainokoa eta haren objektuaren eta edukien egokitasuna jasoko dira, nolahi ere.

4.2. Pleguak

50.000 euro baino gehiagoko kontratuetan (BEZa aplikatu gabe), Plegu bat prestatu beharko da. Obra-kontratuak ez diren kontratuetan, Kontratazio Organoaren irizpidearen arabera, Plegua ere egin ahal izango da, zenbatekoa 18.000 eurotik gorakoa denean (BEZ sartu gabe).

Plegua, Kontratazio-Organoak hala baderitzo, kontratatzen den kopurua 18.000 eurotik gorakoa denean (BEZik gabe).

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, behar izanez gero, laneko kontratuen subrogazio-baldintzen inguruko informazioa emango da, SPKLTBko 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Obra-kontratuak direnean ere dagokien Obra Proiektua prestatu beharko da, eta, hala egokitzen bada, Preskripzio Teknikoen pleguaren ordez balio ahal izango du horrek.

SPKLren II. Eranskinetako 17. eta 27. bitarteko kategorietan sartzen diren 193.000 euro edo gehiagoko zerbitzu-kontratuak, SPKLTBren 137.1. artikuluan aurreikusitakoaren mende egongo dira orobat.

5. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua gauzatzean perfektionatu da.

Kontratua idatziz formalizatuko da.

Kontratua, hala egitea zilegi delako, zuzenean esleitzen bada, kontratua formalizatzeko aski izango da dagokion aurrekontua igortzea eta hura onetsi dela idatziz jakinaraztea.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegurik prestatzen ez baldin bada sinatuko den kontratuan nahitaez sartuko dira SPKLTBko 26. artikuluan adierazitako aipamenak.

Kontratuan ez da sartuko, inola ere, Pleguetan kontratugileentzat aurreikusitako eskubiderik eta betebeharririk, aurkeztutako eskaintzatik eta esleipen-egintzako zehaztapenetatik ondorioztatzen ez denik.

6. KONTRATUA BETETZEA

Kontratuaren efektuei eta haren iraungitzeari dagokienez, Pleguetan aurreikusitako baldintzak (Plegu hauek, hala erabakitzen bada, Administrazio Publikoetako kontratazio-arauketari lotu ahal izango dira) eta, ordezeko moduan, zuzenbide zibilekoak aplikatuko dira, kontratuaren modifikazio kasuei dagokiena salbuetsiz. Kasu hauetan, I Liburuko V Tituluan jasotakoa aplikatuko da ((SPKLTBko 105, 106, 107 eta 108 artikulua).

II. Plegua

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguak, prozedura negoziatuaren berezitasunak kontuan hartuta, alderdi hauek zehaztuko ditu:

- Kontratazio-organoa.
- Publikotasuna, kontratatzailearen profila ezagutzeko modua eta publikotasun-gastuak.
- Kontratuaren helburua eta, halakorik bada, loteak.
- Kontratuak aseko dituen premiak eta kontuan hartu beharreko edozein izaerako faktoreak.
- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua edo kontratuaren balio estimatua eta, halakorik bada, aurrekontuaren urtekako banaketa.
- Kontratu izaerako dokumentazioa.
- Kontratuaren iraupena eta, halakorik bada, luzapenen zehaztapena.
- Kontratu esleitzeko prozedura: Prozedura irekia, mugatua edo negoziatua.
- Proposamenen aurkezpena:
 - Aurkezteko modua.
 - Forma eta edukia (aurkeztu beharreko dokumentazioa)
 - Aurkezteko epea eta lekua.
- Kontratista:
 - Gaitasuna.
 - Ahalmen-baldintzak.
 - Kontratatze debekuak.
 - Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).
 - Kaudimen teknikoa edo profesionala (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

- Ebaluazioa eta esleipena:
Esleitzeko irizpideak eta irizpide horien ponderazioa.
Prozedura negoziatua denean, negoziataz daitezkeen alderdiak, eta, hala behar izanez gero, esleitzeko irizpideak eta irizpide horien ponderazioa.
Onetsitako proposamenak zabaltzea.
Proposamenak ebaluatzea eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aukeratzea.
Ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatuak aurkeztu beharreko dokumentazioa.
Kontratuaren esleipena eta jakinarazpena.
- Esleipendunak aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa eta epea.
- Kontratuaren formalizazioa eta epea.
- Kontratugileen eskubideak eta betebeharrak.
- Kontratua jasotzea eta kontratatutako zerbitzuaren berme-epea.
- Prezioa ordaintzeko araubidea.
- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak
- Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Orobat, Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguak beste alderdi hauek ere jaso ahal izango ditu:

- Finantzaketa.
- Aldaerak edo hobekuntzak: Baimen-adierazpena, baimentzen diren aldaera edo hobekuntzen betekizunak, mugak, modalitateak eta alderdiak ere jasoz.
- Prezioak berrikustea (aplikagarria den formula edo indize ofiziala adieraziz), SPKLTBren 87. artikuluko 3. atalean ezarritakoaren arabera.
- Behin-behineko edota behin betiko bermeak.
- Sailkapena.
- Gaitasun-eta kaudimen-betekizunen egiaztagirak aztertzeke data.
- Kontratua aldatzeko aukera. Modu argi, zehatz eta agerian zehaztuko dira ondorengoak: kontratua erabili ahal izateko baldintzak; ados daitezkeen aldaketak zenbaterainokoak diren eta zeintzuk diren haien mugak; kontratuaren prezioaren portzentajea, gehienez eragin diezaiokeena, eta horretarako jarraitu beharreko prozedura. Hori guztia egiteko, SPKLTBren horren inguruan jasotako zehaztapenak (106. artikulua) errespetatu eta beteko dira.
- Kontratatari ezarritako konfidentzialtasun-betekizunaren gaiari eta denborari buruzko hedadura.
- Lagapena eta azpikontratazioa: Kontratua lagatzeko baldintzak eta kontratatari kontrata ditzakeen jarduerak edo horien portzentajea (SPKLTBren 226.2. c) eta 227.5. artikuluen arabera).

- Atzerapenagatiko eta betetze akastunagatiko zigorrak.
- Ordenamendu juridikoaren kontra ez doan beste edozein itun, klausula eta baldintza.

III. Esleipen-prozedurak

Ondoren, SPKLTBren 191. artikuluan kontratu-moten eta kontratu horien zenbatekoen arabera aurreikusitaren diren esleipen-prozedurak zehazten dira.

Orain xedatuko dena baztertu gabe, Kontratazio-Organoak elkarrizketa lehiakorraren prozeduraz jokatu ahal izango du, 179-183 bitarteko artikuluetan esaten diren kasuetan eta artikuluko horietan bertan aurreikusitako ondorioekin.

Orobat, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemak erabili ahal izango ditu (akordiomarkoak, kontratazio-sistema dinamikoak eta kontratazio-zentralak); halakoetan, 196-205 bitarteko artikuluetan aurreikusitakora egokituko da, arauketa harmonizatuaren mende dauden kontratuak esleitzeko.

1. OBRA KONTRATUAK

1.1. Zenbatekoen arabera sailkapena

Obra-kontratuari dagokionez, hiru prozedura ezberdin daude, obraren zenbateko ekonomikoaren arabera. Hala:

- a) 49.999,99 eurora arteko obra-kontratua.
- b) 50.000 eurotik 999.999,99 eurora bitarteko obra-kontratua.
- c) 1.000.000 eurotik 4.844.999,99 eurora² bitarteko obra-kontratua³.

Kopuru horiek guztiak BEZik gabeak dira.

1.2. 49.999,99 eurora arteko obra-kontratuak

Kontratu mota hauek, orokorrean, zuzenean esleituko dira. Dagokion aurrekontua eskatuko da eta Elkarrekin onespina emango dio; ondoren, kontratua sinatuko da edota aurrekontuari idatzizko eta berriazko onespina emango zaio, eta onartu egin dela jakinaraziko da.

Behin kontratua bete dela egiaztatuta, eta kontratistak faktura aurkeztu eta hura onartu ondoren, prezioa ordainduko da.

Nolanahi ere, prozedura negoziatua, irekia edota mugatua, ere aukeratu ahal izango da eta kasu horietan hurrengo atalean xedatzen dena aplikatuko da.

1.3. 50.000 eurotik 999.999,99 eurora bitarteko obra-kontratua

²

Edo Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztu dezakeen zenbatekoa, SPKLTBren Hamaikagarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

Kontratu mota hau prozedura negoziatu, ireki edo mugatuaren bidez esleituko da. Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztu beharko da zein prozedura aukeratzen den.

1.3.1. PROZEDURA NEGOZIATUA

Prozedura negoziatua aukeratzen bada, ondoko izapide hauek jarraituko dira:

a) Eskaera: Kontratazio-eskaera Elkartearen barneko langileek III. Eranskineko inprimakia betez egingo da.

b) Eskaintzen eskaerak: Kontratuaren objektua betetzeko gai diren hiru enpresei eskatuko zaie, gutxienez, eskaintza egin dezatela.

c) Pleguak: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu bat ezarriko da (jarraibide hauen B ataleko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin), eta baita Preskripzio Teknikoen plegu bat ere, edota dagokion Obra-Proiektua.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, behar izanez gero, laneko kontratuen subrogazio-baldintzen inguruko informazioa emango da, SPKLTBko 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

d) Publikotasuna: Kontratuaren zenbatekoa 200.000 euro baino gehiagokoa bada, haren lizitazioa eta esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Hori dena, atal honetako g) letran aurreikusitakoa baztertu gabe.

e) Ebaluazioa: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztuko dira enpresekin negoziatuko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak eta, hala badagokio, kontratua esleitzeko irizpideak eta irizpideok ponderatzeko modua ere.

Egindako negoziazioen ondoren, eta, edonola ere, azkenean aurkeztutako eskaintzak ikusita, DEBEGESAko langile teknikoek Kontratazio Organora eramango dute aurkeztutako proposamenen zerrenda jasotzen duen proposamena (zerrenda horretan neurritz kanpo eta ezohiko moduan aitortu gabeak ageriko dira) eta ekonomikoki onuragarriena izan den eskaintzaren identifikazioa.

Proposamen horretan, egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak adierazi beharko dira.

200.000 eurotik gorako kontratuetan, txosten juridiko bat aurkeztu beharko da proposamen horrekin batera.

f) Kontratuaren esleipena: Kontratazio Organoak kontratua esleituko dio ekonomikoki onuragarriena izan den eskaintzari, langile teknikoaren proposamena ikusita.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena erabakiko du, eta, lizitatzailerei jakinaraztearekin batera, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua langile teknikoek egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, erabaki horren inguruko arrazoiak eman beharko ditu.

g) Beste aplikazio kasu batzuk: 170 eta 171. artikuluetako a), b) eta c) ataletan aurreikusitako kontratuak direnean ere prozedura negoziatuaz baliatu ahal izango da, kontratuaren zenbatekoa edozein dela ere.

Kasu horietan, 170. artikulua a) eta b) ataletako eta 171. artikulua a) ataleko kasuetan baizik ez da argitaratuko lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan edo jarraibide hauetan berariaz aurreikusi ez denetan, 151. (1., 2., 3. ataletan), 169., 176., 177., 178. artikuluetan eta horietatik eratorritako gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, Administrazio Publiko bat ez izateagatik dagozkien egokitzapenak eginda.

1.3.2. PROZEDURA IREKIA EDO MUGATUA

Prozedura irekia edo mugatua aukeratzen bada, hurrengo atalean xedatutakoa aplikatuko da.

1.4. 1.000.000 eurotik 4.844.999,99 eurora bitarteko obra-kontratuak

Era honetako kontratuak prozedura ireki edo mugatuaren bidez esleituko dira. Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztu beharko da zein prozedura aukeratzen den.

Prozedura irekia zein prozedura mugatua aukeratu, arau hauek aplikatuko dira:

a) Eskaera: Kontratazio-eskaera Elkartearen barneko langileek III. Eranskineko inprimakia betez egingo da.

b) Pleguak: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu bat prestatuko da (jarraibide hauen B ataleko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin), eta baita Preskripzio Teknikoen plegu bat ere, edota dagokion Obra-Proiektua.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, behar izanez gero, laneko kontratuen subrogazio-baldintzen inguruko informazioa emango da, SPKLTBko 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

c) Publikotasuna: Lizitazioa kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, gutxienez, edota kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean. Egindako aukera Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan adieraziko da.

Esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

d) Proposamenak aurkezteko epea: Proposamenak aurkezteko epea Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztuko da. Epe hori, edonola ere, ez da hogeita sei (26) egun baino laburragoa izango, Kontratazio-Organok, epea laburtzea zilegiztatzan duten egoera bereziak direla-eta, kontraktorik iritzi ezean.

e) Proposamenak aurkezteko modua: Proposamenak ezkutukoak izango dira eta gutunazal itxietan igorriko dira, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan xedatzen den moduan.

f) Ebaluazioa: Kontratazio-Organok kontratua esleitzeko eta ponderatzeko oinarritzat zer irizpide hartuko diren ezarriko du, eta irispide horiek iragarkian zein Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan jakinaraziko dira.

Kontratuaren objektuari zuzenean dagozkion irizpideak hartu ahal izango dira kontuan, hala nola: kalitatea, prezioa, obraren erabilpenari dagozkion ordainketak berrikusteko moduak, prestazioa burutzeko edo entregatzeko epea, erabiltzeko prezioa, ingurumen-ezaugarriei edo gizartearen eskakizunei dagozkienak, errentagarritasuna, balio teknikoak, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta prezioa, mantentze-lanak, asistentzia teknikoak, saldu ondoko zerbitzua edo gisa bereko beste zenbait.

Ekonomia eta Administrazio Baldintzen Pleguan jaso ahal izango dira aurkeztutako proposamenak ebaluatzeko txosten teknikoak egiteaz eta Kontratazio Organora aurkeztutako proposamenen zerrenda jasotzen duen proposamena eramateaz arduratuko den Batzorde baten osaera eta ahalmenak. Aurkeztutako proposamen horiek goitik beherako ordenan sailkatuko dira, eta neurritz kanpo edo ezohiko gisa aitortu gabekoak izango dira, Baldintza Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan proposamenak baloratzeko aurreikusitako irizpideen arabera. Era berean, Pleguan, ekonomikoki onuragarriena izan den eskaintzaren identifikazioa jaso ahal izango da.

g) Kontratuaren esleipena: Kontratazio-Organok ekonomikoki abantailatsuen den eskaintzari esleituko dio kontratua, Klausula Ekonomiko-Administrazioen Pleguan aurreikusitako proposamenak balioztatzeko irizpide objektiboak jarraituz eta talde teknikoaren proposamena, edo, haien lekuan, Ebaluazio Batzordearena aintzat hartuta.

Kontratazio Organok kontratuaren esleipena erabakiko du, eta, lizitatuzaileei jakinaraztearekin batera, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio-Organok kontratua langile teknikoak edo haien lekuan, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, hartu duen erabakia hartzeko arrazoiak adierazi beharko ditu.

Pleguan edo jarraibide hauetan ez balego berariazko aurreikuspenik, honakoetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

- Prozedura irekirako eta prozedura mugaturako, 151. artikuluan (1, 2 eta 3 atalak).

-prozedura irekietarako, 157., 158., 160. (adituen batzorde edo erakunde tekniko espezializatuaren esku-hartzeari buruz aurreikusitakoa ez da inolaz ere aplikatzekoa izango) eta 161. artikuluetan aurreikusitakoa; prozedura mugatuetarako, 162., 163., 165., 166., 167., 168., artikuluetan eta hauetatik eratorritako gainerako artikuluetan aurreikusitakoa. Batean zein bestean, Administrazio Publiko bat ez izateagatik dagozkion egokitzapenak egin beharko dira.

2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIKUNTZA, ZERBITZUAK ETA BESTE BATZUK)

2.1. Zenbatekoen arabeko sailkapena

Kontratu hauei dagokienez (hornikuntza, zerbitzuak eta beste batzuk), hiru prozedura ezberdin daude, diru kopuruaren arabera. Hala:

a) 17.999,99 eurora arteko kontratua.

b) 18.000 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko kontratua.

c) 100.000 eurotik 192.999,993 eurora³ bitarteko hornikuntza-eta zerbitzuketak⁴; gainerako kontratuetan ez dago zenbateko mugarik.

Kopuru horiek guztiak BEZik gabeak dira.

2.2. 17.999,99 eurora arteko kontratuak

Era honetako kontratuak **zuzenean esleituko dira**, oro har. Dagokion aurrekontua eskatuko da eta Elkartek onartuko du. Ondoren, kontratua sinatu egingo da edota aurrekontuari idatzizko eta berriazko onespena emango zaio, eta onartu egin dela jakinaraziko da.

Behin kontratua bete dela egiaztatuta, eta kontratistak faktura aurkeztu eta hura onartu ondoren, prezioa ordainduko da.

Nolanahi ere, prozedura negoziatua, irekia edota mugatua ere aukeratu ahal izango da, eta kasu horietan hurrengo atalean xedatutakoa aplikatuko da.

2.3. 18.000 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko kontratuak.

Kontratu mota hau **prozedura negoziatu, ireki edota mugatu** bidez esleituko da. Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztu beharko da zein prozedura aukeratu den. Hori existituko ez balitz, Kontratazio Organoaren berriazko erabakiaren bidez hautatuko da.

2.3.1. PROZEDURA NEGOZIATUA

Prozedura negoziatua aukeratu bada, izapide hauek jarraituko dira:

a) Eskaera: Kontratazio-eskaera Elkartek barneko langileek III. Eranskinetako inprimakia beteaz egingo da.

b) Eskaintzen eskaerak: Kontratuaren objektua burutzeko gai diren hiru enpresei eskatuko zaie, gutxienez, eskaintza egin dezatela.

c) Pleguak: Kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu bat (jarraibide hauen B ataleko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin), Preskripzio Teknikoen Plegu bat eta dagokion Obra-Proiektua prestatuko dira.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, behar izanez gero, laneko kontratuen subrogazio-baldintzen inguruko informazioa emango da, SPKLTBko 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa baldin bada.

Kontratuaren zenbatekoa 50.000 euro edo gutxiagokoa baldin bada, hautazkoa izango da Pleguak prestatzea.

d) Publikotasuna: Kontratuaren zenbatekoa 60.000 euro baino gehiagokoa bada, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira haren lizitazioa eta esleipena.

Kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

³

Edo Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztu dezakeen zenbatekoa, SPKLTBren Hamalagarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

Hori dena, atal honetako g) letran aurreikusitakoa baztertu gabe.

e) Ebaluazioa: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztuko dira enpresekin negoziatuko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak eta, hala badagokio, baita esleitzeko irizpideak eta haiek ponderatzeko modua ere.

Egindako negoziazioen ondoren, eta, edonola ere, azkenean aurkeztutako eskaintzak ikusita, DEBEGESAko langile teknikoek Kontratazio Organora eramango dute aurkeztutako proposamenen zerrenda jasotzen duen proposamena (zerrenda horretan neurritz kanpo eta ezohiko moduan aitortu gabeak ageriko dira) eta ekonomikoki onuragarriena izan den eskaintzaren identifikazioa.

Txosten horretan, egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak adierazi beharko dituzte.

f) Kontratuaren esleipena: Kontratazio Organoak kontratua esleituko dio ekonomikoki onuragarriena izan den eskaintzari, langile teknikoek proposamena ikusita.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena erabakiko du, eta, lizitatzailerari jakinaraztearekin batera, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua langile teknikoek egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, erabaki horren inguruko arrazoiak eman beharko ditu.

g) Beste aplikazio kasu batzuk: 170. artikuluan eta 173. artikuluen a), b), c), d) eta e) ataletan, 174. artikuluen a), b), c) eta d) ataletan eta 175. artikuluan aurreikusitako kontratuak direnean ere prozedura negoziatuaz baliatu ahal izango da, kontratuaren zenbatekoa edozein dela ere.

Kasu horietan, 170. artikuluen a) eta b) ataletako eta 174. artikuluen a) ataleko eta 175. artikuluko kasuetan (kontratuaren zenbatekoagatik prozedura negoziatua aukeratzen denean, eta zenbatekoa 60.000 euro baino gehiagokoa denean) besterik ez da argitaratuko lizitazioaren iragarkia kontratzailearen profilean.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan edo jarraibide hauetan berariaz aurreikusi ez denetan, 151. (1., 2., 3. ataletan), 169., 176., 177., 178. artikuluetan eta horietatik guztietatik eratorritako gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, Administrazio Publiko bat ez izateagatik dagozkien egokitzapenak eginda.

2.3.2. PROZEDURA IREKIA EDO MUGATUA

Prozedura irekia edo mugatua aukeratzen bada, hurrengo atalean xedatutakoa aplikatuko da.

2.4. 100.000 eurotik 192.999,99 eurora bitarteko kontratuak

Era honetako kontratuak prozedura ireki edo mugatuaren bidez esleituko dira. Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztu beharko da zein prozedura aukeratzen den.

Prozedura irekia zein prozedura mugatua aukeratu, arau hauek aplikatuko dira:

a) Eskaera: Kontratazio-eskaera Elkarte barneko langileek III. Eranskinetako inprimakia beteaz egingo da.

b) Pleguak: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu bat (jarraibide hauen B ataleko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin) eta Preskripzio Teknikoen Plegu bat prestatu beharko dira.

Pleguan bertan edo dokumentazioan, behar izanez gero, laneko kontratuen subrogazio-baldintzen inguruko informazioa emango da, SPKLTBko 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

c) Publikotasuna: Lizitazioa kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, gutxienez, edota kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean. Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan adieraziko da zein aukeratu den.

Kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

d) Proposamenak aurkezteko epea: Proposamenak aurkezteko epea Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztuko da. Epe hori, edonola ere, ez da hamabost (15) egun baino laburragoa izango, Kontratazio-Organok, epea laburtzea zilegiztatzan duten egoera bereziak direla-eta, kontraktorik iritzi ezean.

e) Proposamenak aurkezteko modua: Proposamenak ezkutukoak izango dira eta gutunazal itxietan igorriko dira, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan xedatzen den moduan.

f) Ebaluazioa: Kontratazio-Organok kontratua esleitzeko eta ponderatzeko oinarritzat zer irizpide hartuko diren zehaztuko du, eta irizpide horiek iragarkian zein Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan jakinaraziko dira.

Kontratuaren objektuari zuzenean dagozkion irizpideak hartu ahal izango dira kontuan, hala nola: kalitatea, prezioa, obraren erabilpenari dagozkion ordainketak berrikusteko moduak, prestazioa burutzeko edo entregatzeko epea, erabiltzeko prezioa, ingurumen-ezaugarriei edo gizartearen eskakizunei dagozkienak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordeko piezen eskuragarritasuna eta prezioa, mantentze-lanak, asistentzia teknikoa, saldu ondoko zerbitzua edo gisa bereko beste zenbait.

Ekonomia eta Administrazio Baldintzen Pleguan jaso ahal izango dira aurkeztutako proposamenak ebaluatzeko txosten teknikoa egiteaz eta Kontratazio Organora aurkeztutako proposamenen zerrenda jasotzen duen proposamena eramateaz arduratuko den Batzorde baten osaera eta ahalmenak. Aurkeztutako proposamen horiek goitik beherako ordenan sailkatuko dira, eta neurritz kanpo edo ezohiko gisa aitortu gabekoak izango dira, Baldintza Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan proposamenak baloratzeko aurreikusitako irizpideen arabera. Era berean, Pleguan, ekonomikoki onuragarriena izan den eskaintzaren identifikazioa jaso ahal izango da.

g) Kontratuaren esleipena: Kontratazio-Organok ekonomikoki abantailatsuenaren eskaintzari esleituko dio kontratua, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan aurreikusitako proposamenak balioztatzeko irizpide objektiboei jarraituz eta talde teknikoak edota haren kasuan, Ebaluazio-Batzordeak egindako esleipen-proposamena aintzat hartuta.

Kontratazio Organok kontratuaren esleipena erabakiko du, eta, lizitatzaleei jakinaraztearekin batera, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio-Organok kontratua langile teknikoek edota, haren kasuan Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, hartu duen erabakia hartzeko arrazoiak adierazi beharko ditu.

Pleguan edo jarraibide hauetan ez balego berriazko aurreikuspenik, honakoetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

-prozedura irekietarako eta prozedura mugatuetarako, 151. artikuluan (1., 2. eta 3. ataletan) aurreikusitakoa.

-prozedura irekietarako, 157., 158., 160., (adituen batzorde edo erakunde tekniko espezializatuaren esku-hartzearen inguruan aurreikusitakoa ez da inolaz ere aplikatzekoa izango) eta 161. artikuluetan aurreikusitakoa; prozedura mugatuetarako, 162., 163., 165., 166., 167., 168., artikuluetan eta hauetatik eratorritako gainerako artikuluetan aurreikusitakoa. Batean zein bestean, Administrazio Publiko bat ez izateagatik dagozkion egokitzapenak egin beharko dira.

IV. Errekurtsiak

Kontratu hauen prestaketari, esleipenari, efektuei, betetzeari edo suntsipenari dagokienez, **jurisdikzio zibilaren aurrean** baizik ezin jarriko da errekurtsorik.

SPKLTBko II. Eranskinen 17. kategoriatik 27. kategoriara bitartean jasotako zerbitzuko kontratuak, hots, 193.000 eurokoak edo hortik gorakoak direnak, prestatzearen eta esleitzearen inguruko gaietan, argibide horietako IV. Epigrafean, C atalean erregulazio harmonizatuaren mendeko kontratuentzat ezarritakoa beteko da.

Gainera, egindako kontratuen efektuen, betetzearen eta suntsipenaren gaineko desadostasunak ebazteko, **arbitrajera** jotzeko aukera izango da, abenduaren 23ko 60/2003 Legeko xedapenen arabera. Aukera horrek dagokion Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan jasota egon beharko du edo, hartan halakorik egon ezean, beste edozein kontratu-dokumentutan.

C. ARAUKETA HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK

Kontratu hauek dira:

-Balio estimatua 4.845.000 euro⁴ edo gehiagokoa duten obra-kontratuak⁵.

-Balio estimatua 193.000 euro⁴ edo gehiagokoa duten hornikuntza-kontratuak⁴.

-SPKLTBren II. Eranskinen 1. eta 16. bitarteko kategorietan sartzen diren eta balio estimatua 193.000 euro⁴ edo gehiagokoa duten zerbitzu-kontratuak⁴.

Kopuru hauek BEZik gabekoak dira.

Hori guztia ez da aplikagarri izango 13.2 artikuluko kontratuen kasuan. Edozein dela ere kontratu horien balioa, ez dira arauketa harmonizatuaren mendeko egongo.

4

Edo Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztu dezakeen zenbatekoa, SPKLTBren Hamalagarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

4

I. Orokorrean aplikatzeko arauak

Aruketa harmonizatuaren mende dauden kontratuei aplikagarri zaie jarraibide hauetako B ataleko I. epigrafean aurreikusitakoa, hots, aruketa harmonizatuaren mende ez dauden kontratuei buruzkoa, ondoko berezitasun hauekin:

1. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOZKIEN BEREZITASUNAK

1.1. Gaitasun-baldintzei dagozkien berezitasunak

54. artikuluan xedatutakoaz gain, aplikagarria izango da 55. artikulua ere (Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatuetako enpresek ez dute elkarrekikotasuntxostena aurkeztu beharrik izango).

1.2. Kaudimeneko gutxieneko baldintzei dagozkien berezitasunak

Jarraibide hauetako 2.4 ataleko B.I epigrafean xedatutakoaz gainera, beti aplikatuko dira kaudimena egiaztatze moduei dagozkien 74. eta 79 bitarteko artikulua ere.

1.3. Kalitate-bermea eta ingurumenaren kudeaketarako arauak betetzea

Kalitate-bermea eta ingurumenaren kudeaketarako arauak betetzearen egiaztagiriei dagokienez, 80. eta 81. artikulua aplikatuko dira.

Horretarako aurreikuspenak Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguan zehaztuko dira.

2. KONTRATUAREN PRESTAKETA

117. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira preskripzio teknikoak definitzeko eta ezartzeko.

Orobat, 118. artikuluan (kontratua betetzeko baldintza bereziak), 119. artikuluan (zergei, ingurumenaren babesari, lanari eta lan baldintzei dagozkien betebeharreri buruzko informazioa) eta 120. artikuluan (lan-kontratuak subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa) xedatutakoa ere aplikatuko da.

Atzeratu ezin den behar bati erantzuteko kontratua egin beharrik bada, edota interes publikoa dela-eta esleipena bizkortu beharrik gertatzen bada, Kontratazio-Organok izapidetze-prozesua presazkotzat jo ahal izango du, prestakuntza-dokumentazioan behar den moduan arazoituz. Halakoetan, epeak laburtzeari dagokion 112.2.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

3. KONTRATUA PERFEKZIONATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua gauzatzean perfektionatuko da, eta idatziz formalizatuko da.

II. Plegua

Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguak, jarraibide hauetako B ataleko II. epigrafean aipatzen diren alderdiez gainera, honako alderdiak zehaztu ahal izango ditu aruketa harmonizatuaren mende ez dauden kontratuentzat:

. SPKLTBren 80. eta 81. artikulua, kalitate-bermea eta ingurumenaren kudeaketarako arauak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoak, betetzen direla egiaztatzea.

. Kontratua betetzeko baldintza bereziak eta horiek ez betetzearen ondorioak (SPKLTBren 118. artikuluan aurreikusitako moduan).

. Zergei, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan-baldintzei dagozkien betebeharrei buruzko informazioa (SPKLTBren 119. artikuluan aurreikusitako moduan).

III. Esleipen-prozedura

Arauketa harmonizatuaren mende dauden kontratuak SPKLTBren 190. artikuluan zehaztutakoaren arabera esleituko dira; hau da, Administrazio Publikoen kontratuak esleitzeko aurreikusitako moduan, honako egokitzapen hauek eginda:

- a) Ez da aplikatuko 150. artikuluan 2. atalean, irizpide subjektiboak balioztatzeke adituen batzordearen esku-hartzeari buruzkoan, xedatutakoa.
- b) Ez da aplikatuko 152. artikuluan 1. eta 2. ataletan, eskaintzen izaera anormala edo neurritz kanpokoa den identifikatzeko irizpideei buruzkoetan, xedatutakoa.
- c) Ez da aplikatuko 156. artikuluan, kontratuen formalizazioari buruzkoan, xedatutakoa; horrek ez du esan nahi, hala ere, artikuluan hartako 3. atalean epeari buruz aginduta dagoena, eta 5. atalean agintzen dena bete behar ez denik.
- d) Ez da aplikatuko 160. artikuluan, proposamenen eta esleipen-proposamenen azterketari buruzkoan, xedatutakoa.
- e) Ez da aplikatuko 172. artikuluan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozedura negoziatuak erabiltzeko aukera dagoen kasuei buruzkoan, xedatutakoa.

Presagatik Legeak ezarritako gutxieneko epeak betetzea ezinezkoa bada, 112.2.b) artikuluan, epeak laburtzeari buruzkoan, aurreikusitakoa aplikatuko da.

Ekonomia eta Administrazio Baldintzen Pleguan jaso ahal izango dira aurkeztutako proposamenak ebaluatzeko txosten objektiboak egiteaz eta Kontratazio Organora aurkeztutako proposamenen zerrenda jasotzen duen proposamena eramateaz arduratuko den Batzorde baten osaera eta ahalmenak. Aurkeztutako proposamen horiek goitik beherako ordenan sailkatuko dira, eta neurritz kanpo edo ezohiko gisa aitortu gabekoak izango dira, Baldintza Ekonomiko eta Administrazio Pleguan proposamenak baloratzeko aurreikusitako irizpideen arabera. Era berean, Pleguan, ekonomikoki onuragarriena izan den eskaintzaren identifikazioa jaso ahal izango da.

Lizitatuzaileei esleipenaren berri emateko jakinarazpenean, edonola ere, beharrezko informazioa agertuko da, kanpoan geratu den lizitatuzaileak edo baztertua izandako hautagaiak, SPKLTBko 40. artikuluan jarraiki, esleipenaren erabakiaren aurka behar adinako errekurtsioa jarri ahal izateko. Bereziki, jakinarazpenean ondorengo alderdiak azalduko dira:

- a) Alde batera geratutako hautagaiei dagokienez, haien hautagaitza atzera botatzeko izandako arrazoien azalpen laburtua.
- b) Esleipen-prozeduraz kanpo geratutako lizitatuzaileei dagokienez, haien eskaintza ez onartzeko izandako arrazoiak labur-labur.
- c) Nolanahi ere, esleipendunaren izena eta esleipendunaren proposamena gainerako lizitatuzaileek aurkeztutakoan eta onartuak izandakoan gainetik hautatzeko dituen ezaugarriak eta abantailak.

Esleipenaren motibazioan aplikatu ahal izango da kontratua gauzatzeko behar den konfidentzialtasun salbuespena, 153 artikulua araberan.

Nolanahi dela ere, jakinarazpen horretan eta kontratugilearen profilean zehazki adieraziko da 156.3. artikulua araberan kontratua formalizatzeko epea.

Lizitazioa eta formalizazioa honako argitalpen hauetan argitaratuko dira, gutxienez:

a) Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta 334. artikuluan aipatzen den kontratazio-plataforman edo Elkarte mendeko duen Administrazio Publikoak kudeatzen duen eta haren baliokidea den sisteman.

b) Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, lizitazioaren, esleipenaren eta formalizazioaren iragarkiak kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

IV. Errekurtsoak

1. PRESTAKETA ETA ESLEIPENA

Aukerako izaeraz, kontratazio arloko errekurtso berezia jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri aurretik, honako hauen kasuan:

a) Kontratazioa arautzen duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-dokumentuak, lizitazio-iragarkiak eta Pleguak.

b) Esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, betiere zuzenean edo zeharka esleipenean erabakitzen badute, prozedura jarraitu ezina eragiten badute edo eskubide edo interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute.

c) Esleipen-akordioak.

Errekurtsoa ebazteko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera dagokion organoarena izango da, kontuan hartuta abuztuaren 5eko 34/2010 Legeko bigarren xedapen iragankorrean eta SPKLTBko 41. artikuluko 5. atalean ezarritakoa; alegia, Kontratuko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administrazioak izango du eskumen hori.

Errekurtsoa ezartzeko idatzia DEBEGESAko kontratazio-organoren erregistroan aurkeztuko da nahitaez edota errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko; hots, Kontratuko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administrazioan.

Kontratazio-gaietako errekurtso berezia SPKLTBren 40. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da.

Behin-behineko neurri-eskakizunari dagokionez, SPKLTBren 43. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Kontratazio gaietako errekurtso bereziaren ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baizik ezin izango da egin, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera.

Deuseztapen-eskakizunari dagokionez, SPKLTBren 39. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

SPKLTBren II. Eranskinen 17. eta 27. bitarteko kategorietan sartzen diren zerbitzukontratuak direnean, edozein dela ere haien zenbatekoa, arauketa harmonizatuaren mende ez dauden arren, zenbatekoa 193.000 euro edo gehiagokoa denean, kontratazio gaietako errekurtsio berezia, behin-behineko neurri-eskakizuna, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa edo deuseztapen-eskakizuna egin ahal izango dira horien aurka, atal honetan aurreikusitakoaren arabera.

2. EFEKTUAK ETA IRAUNGITZEA

Kontratu hauen efektuei, betetzeari edo suntsipenari dagozkion gaietan, jurisdikzio zibilaren aurrean bakarrik egin ahal izango da errekurtsioa.

V. Ofiziozko berrikusketa

Erregulazio harmonizatuaren mendeko kontratuen prestakuntza-egintzak eta esleipen-egintzak ofizioz berrikusteko, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko VII. Tituluko Lehen Kapituluaren ezarritakoa jarraituko da.

Egintza horien deuseztasuna edo kaltegarritasuna aitortzeko eskumena izango du Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuko titularrak, hots, DEBEGESAren tutoretza duenak.

Hori guztia SPKLTBko 34. artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Elkartean Internet bidez ezagutaraziko du bere kontratatzaile profila, bere kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta publikitatea bermatzeko.

Kontratatzailearen profila ezagutzeko modua Pleguetan eta lizitazio-iragarkietan zehaztuko da, besteak beste.

Kontratatzailearen profila jasoko duen sistema informatikoak informazioa argitaratzen den unean sinesgarritasunez ziurtatuko duen gailuren bat eduki beharko du.

Elkartean kontratatzaile-profilean datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

- a) Kontrataziorako barne jarraibide hauek.
- b) Kontratuen lizitazio-iragarkiak, kontratu txikiak eta publikitaterik gabe negoziatzen direnean salbu.
- c) Kontratuen esleipena, kontratu txikiak kenduta.
- d) Erregulazio harmonizatuaren mendeko kontratuak gauzatzea.

Gainera, kontratatzailearen profilean Elkartearen kontratu-jarduerari dagokion edozein informazio edo datu ager ere daiteke, hala nola: 141. artikuluko aurreiazko informazioaren iragarkiak, lizitazio irekiak edo bidean daudenak, haiei buruzko dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleitutako

kontratuak, deuseztatutako prozedurak, Kontratazio-Organoarekin harremanetan jartzeko lekuak eta moduak, eta abar.

4. artikulua. Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak

1. Lege honen eremutik kanpo daude ondoren zehazten diren negozioak eta harreman juridikoak:

a) Funtzionario publikoen zerbitzu-harremana eta laneko legerian araututako kontratuak.

b) Zerbitzu publiko bat erabiltzearen truke erabiltzaileek aplikazio orokorreko tarifa, tasa edo prezio publiko bat ordaintzeari dagozkion harreman juridikoak.

c) Estatuko Administrazio Orokorrak Gizarte Segurantza kudeatzen duten erakundeekin eta haien zerbitzu orokorrekin, Unibertsitate Publikoekin, Autonomia Erkidegoekin, Udalekin, erakunde autonomoekin eta gainerako erakunde publikoekin egindako lankidetzak-hitzarmenak, edota erakunde eta entitate hauek beren artean egindakoak, bere izaeragatik Lege honen mendeko kontratuak izan ezean.

d) Administrazioak zuzenbide pribatuaren mende dauden pertsona fisiko edo juridikoekin, hitzarmen horiek arautzen dituzten arau espezifikoak kontuan hartuta, egindako hitzarmenak, baldin eta hitzarmen horien objektua Lege honen arabera edo administrazio-arau berezien arabera arautzen diren kontratuen helburuen artean ez badago.

e) Defentsako arloan sinatzen diren eta Europako Erkidegoa Funtzionamendurako Itunaren 346. artikulua eremuan sartzen diren hitzarmenak.

f) Estatuak beste Estatuarekin edo nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin egindako hitzarmenak.

g) Administrazio publikoen mende dauden eta izaera komertziala, industrial, finantzarioa edo antzekoa duten zuzenbide publikoko erakundeek egiten dituzten jarduera zuzenei dagozkien hornikuntza-kontratuak, baldin eta kontratu horietan aipatzen diren ondasunak, aldatuta edo aldatu gabe, berriro ondasunen trafikoa juridikora itzultzeko asmoz eskuratu baldin badira, bakoitzaren helburuen arabera, erakunde horiek Legeak ematen dizkieten eskumenez baliatuz badihardute betiere.

h) Obra bat elkarren artean egiteko edo ustiatzeko obrei edo hornikuntzei dagokienez edo proiektu bat elkarren artean gauzatzeko edo ustiatzeko zerbitzu-kontratuak dagokienez, Europako Erkidegoaz kanpoko lurralde batekin edo gehiagorekin, Europako Erkidegoaren Funtzionamendurako Itunaren arabera, sinatutako Nazioarteko hitzarmenen bidez sortutako kontratuak.

i) Soldadu-taldeen kokapenari dagokion nazioarteko hitzarmen bategatik egindako kontratuak eta hitzarmenak.

j) Nazioarteko erakunde batek ezarritako prozedura zehatz baten bidez esleitutako kontratuak eta hitzarmenak.

k) Arbitraje-eta adiskidetze-zerbitzuei dagozkien kontratuak.

l) Balioen edo bestelako finantza-tresnen jaulkipen, transferentzia, salerosketa edo igorpenari dagozkien finantza-zerbitzuetako kontratuak, Estatuko finantza-kudeaketari dagozkion eragiketak, sektore publikoko erakunde eta entitateek funtsak edo kapitalak lortzeko egindako eragiketak, Espainiako Bankuak egindako zerbitzuak eta diruzaintza eragiketak batez ere.

m) Sektore publikoko erakunde edo entitate bat ondasunak edo eskubideak ematera edo zerbitzu bat egitera behartzen den kontratuak, ondasun edo zerbitzu horien onuraduna Lege honen mende dagoen

sektore publikoko erakunde bat bada, horrelako kontratuak egiteko Lege horretan agindutakoak betetzera behartuta dagoela kontuan hartuta, hala ere.

n) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, berorren tresna propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera duen erakunde bati zerbitzu jakin bat eman dezan eskatzeko egiten diren negozio juridikoak. Hala ere, tresna propioetat eta zerbitzu teknikotzat hartzen diren erakunde hauek eskatu zaien zerbitzua eman ahal izateko egin behar dituzten kontratuak Lege honen mende egongo dira, kontratu horiek egiten dituen erakundearen

izaeraren arabera eta kontratatzen den zerbitzu motaren eta diru kopuruaren arabera egoki diren terminoetan; dena dela, obra-, zerbitzu-edo hornikuntza-kontratu horietako diru kopuruek Hasierako Idazpuru honen II. Kapituluaren 2. Atalean ezarritako atalaseak gainditzen badituzte, zuzenbide pribatuko erakundeek 137.1. eta 190. artikuluetan ezarritako arauak jarraitu beharko dituzte kontratuok prestatzeko eta esleitzeko orduan.

o) Jabari publikoko ondasunei dagozkien baimenak eta emakidak eta 7. artikuluan definitzen diren ondare-ondasunez bestelakoak ustiatzeko kontratuak, halako guztiak beren legeria espezifikoak arautzen baititu, honako Lege hau aplikatuko dela berariaz adierazten den kasuetan izan ezik.

p) Ondasun higiezin, balio negoziagarrien eta jabetza ukiezin salerosketa-, dohaintza-, trukaketa-, alogera-kontratuak eta antzeko negozio juridikoak, ordenagailuprogramenak ez badira eta zerbitzu-edo hornikuntza-kontratuak ez badira, halakoak kontratu pribatuak izango baitira eta ondareari buruzko legeriak arautuko baititu. Kontratu horietan ez dira sartuko Hasierako Idazpuruaren II. Kapituluaren 1. Atalean arautzen diren ohiko kontratuak berezko zerbitzuak, zerbitzu horien balio estimatua negozio osoaren % 50 baino gehiago bada edota ondare-kontratuaren ezaugarritzko zerbitzuarekin 25. artikuluan aurreikusten diren loturazko eta osagarritasunezko zerikusirik badute; bi kasu horietan, kontratazio berezia egin beharko da zerbitzu horiek kontratatzeko, Legeak agindutakoari jarraituz.

q) Estatuko ikerketarako erakunde publikoek edo autonomia erkidegoetako antzeko erakundeek teknologia-ikerketa, -garapen edo -berrikuntzako proiektuak aurrera eramateko behar diren zerbitzuei edo produktuei dagokienez egindako zerbitzu-eta hornikuntza-kontratuak, baldin proiektu hauen ondorioz aurkeztu eta lortutako ondorioek gerora trafiko juridikoan sartu ahal izango diren emaitza zientifiko, teknologiko edo industrialekin zerikusirik badute eta proiektua gauzatzeko ardura Erakundeko ikerketa-taldeei norgehiagokako lehiaketa bidez esleitu bazaie.

r) Kontratazio-organoak ordaindutako ikerketa eta garapen kontratuak, betiere, organo horrek parte hartzen badu enpresa esleipendunekin, merkatuan dauden irtenbide berritzaileak gainditzen dituztenak garatzeko beharrezkoa den ikerketa zientifikoaren eta teknikoaren arrisku eta etekinetan. Kontratu horiek esleitzerakoan, ondorengo printzipioak errespetatu beharko dira: publizitatea, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentziasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hautatzea.

2. Aurreko atalean zerrendatutako kontratuak, negozioak eta harreman juridikoak bakoitzaren arau berezien arabera arautuko dira, eta horiei dagokienez sor litezkeen zalantzak eta hutsuneak argitzeko Lege honetako printzipioak aplikatuko dira.

13. artikulua. Zedarriztapen orokorra

2. Aurreko atalean xedatutakoaz gainera, ondoren zehazten diren kontratuak ez dira arauketa harmonizatuaren mende egongo, edozein delarik ere haien zenbatekoa:

a) Beren helburua irрати-bidezko zabalkunde-erakundeek irрати bidez zabaltzeko programak erostea, garatzea, ekoiztea edo koproduzitzea dutenak, eta orobat irрати bidezko zabalkunde denborari dagozkionak.

b) Kontratazio-Organok osorik ordaintzen dituen ikerketa-eta garapen-kontratuak, lortzen diren emaitzak organo horrek bere jarduerarako bakarrik erabiltzeko gordetzen ez baditu.

c) Defentsako alorrean sinatzen eta Europako Erkidegoaren Funtzionamendurako Ituneko 296. artikulua eremuan jasotzen direnak.

d) Berezizat edo isilpekotzat hartzen direnak, edo, indarrean dagoen legeriaren arabera, horiek betetzeko segurtasun-neurri bereziak behar direnak, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesen babesak hala jokatzeko eskatzen duenak.

Azken egoera hori betetzen dela aitortu beharko dute, berariaz kasu bakoitzean, honako hauek: Estatuko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen, erakunde kudeatzaileen eta Gizarte Segurantzako zerbitzu komunak eta Estatuko gainerako erakunde publikoen arloan kontratazio-organoren gaineko Ministerioko Saileko titularrak; Autonomia Erkidegoetako eskumeneko organoak; edo Toki Erakundeetan dagokion kontratua egiteko eskumena emanda duen organoak. Aitorpen hori egiteko eskumena ezingo da ordezkatu, lege batek espresuki baimentzen ez badu.

e) Helburu nagusia Kontratazio-Organoei telekomunikazio-sare publikoak eskueran jartzeko edo ustiatzeko edota jendeari telekomunikazio-zerbitzu bat edo gehiago eskaintzeko aukera ematea dutenak.

II. ERANSKINA

Elkartearen izena GEOGARAPEN		KONTRATAZIO ESKAERA			
Eskatzailea		Alorra		Data	
KONTRATAZIOAREN OBJEKTUA ETA KONTRATU MOTA					
ASE BEHARREKO PREMIEN IZAERA ETA NORAINOKOA					
KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIOA ETA EGOKITASUNA					
ZEHAZTASUN TEKNIKO INTERESGARRIAK					
GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA					
Eskatzailearen arloko zuzendariak ontzat emana			Arlo ekonomikoko zuzendariak ontzat emana		
Izena			Izena		
Data			Data		